

Animalietan inspiratutako poesia izango da BilbaoPoesia XIII. Jaialdiaren gaia

Kirmen Uribe idazle ondarrutarra izango da jaialdia inauguratuko duena, Quique Gonzalez kantautore madrildarrak lagunduta eskainiko duen ezohiko errezitaldiarekin.

BILBO - Animalietan inspiratutako poesia izango da BilbaoPoesia Literatur Jaialdiaren 13. edizioaren gai nagusia. Urriaren 13tik 23ra, Felipe Benitez, Jose Corredor-Matheos, Olvido Garcia, Joan Margarit, Valerie Mejer, Bob Holman, Jacques Roubaud, Kirmen Uribe, Harkaitz Cano edo Jose Fernandez de la Sota bezalako poetak igaroko dira jaialdiaren egoitza nagusia izango den Bilboko Bidebarrieta liburutegitik.

Kirmen Uribe idazle ondarrutarra izango da jaialdia inauguratuko duena, Quique Gonzalez kantautore madrildarrak lagunduta eskainiko duen ezohiko errezitaldiarekin. 'Egun euritsuen ostean - Tras unos días lluviosos' izeneko inaugurazio-kontzertua urriaren 13an izango da, 20:00etan. Jaialdia bukatzeko aldiz, Luis Eduardo Autek errezitaldi intimista eta pertsonal bat eskainiko du urriaren 22an (21:00etan).

BilbaoPoesia astearen gai nagusia 'Animalia poesia' izango da aurten, garai guztietako poetek, beren lagun ziren animalietan eta bestelako animalietan inspiratuta idatzi duten literatura zabalaren omenez. Beste kasu batzuetan, animaliak literatur artifizio gisa erabiltzen dira, metafora indartsu edo irudi poetiko gisa.

Gabriel Aresti poeta bilbotarra izango da BilbaoPoesiaren irekiera jardunaldiaren protagonista, datorren ostiralean, urriaren 14an, 1933an idazlea jaio zen egunarekin bat etorritik. Bertan, animaliak protagonista diren bere zenbait poema irakurriko dira. Ekitaldia Francisco Javier Rojo literatur kritikariak aurkeztuko du, eta Ander Lipus eta Miren Gaztañaga antzezleak eta Xabi Strubell gitarrista ere arituko dira.

Asteak duen hitzordurik garrantzitsuenetakoa urriaren 17an ospatuko da. Egun horretan egingo den topaketan Bob Holman poeta, zinemagile eta performer estatubatuarra, Jacques Roubaud frantsesak eta Harkaitz Canok lasartearrak hartuko dute parte.

Urriaren 19an ospe gehien duten poeta espainiarretako biren txanda izango da: Jose Corredor-Matheos eta Felipe Benitez. Biekin batera Jose Fernandez de la Sota poeta bilbotarra egongo da, eta hirurek, aukeratutako zenbait poema irakurriko dituzte. Hurrengo egunean, urriaren 20an, Olvido Garcia Valdes espainiarrak poesia errezitaldi bat eskainiko du, Valerie Mejerrekin mexikarrarekin eta Ernesto Garcia espainiarrarekin.

BilbaoPoesiari astea bukatzeko, 'Poesia katalanaren 50 urte' gaiari buruzko aurkezpen bat egingo da, 'Zurgai' aldizkariarekin elkarlanean. Bertan, Joan Margarit bartzelonarrak eta Teresa Pascual valentziarrak hartuko dute parte.

POESIA BAINO GEHIAGO

Poesiaren Asteak, poesiaren inguruan egituratzen den arren, beste diziplina batzuetatik -musikatik, antzerkitik edo dantzatik- hurbil dauden beste zenbait jarduera bilduko ditu. Horrela, urriaren 15ean, Bilborock aretoak Giraluna poesia eta dantza taldearen 'A tientas' ikuskizuna eskainiko du. Halaber, urriaren 23an, Galatea taldeak 'Las tortugas comen aceitunas' poesia-musika ikuskizuna eskainiko du eszenatoki berean.

Gainera, programazioaren barruan, Elena Roman idazle espainiarrak 'Esta dichosa ansiedad doméstica' lana aurkeztuko da urriaren 18an. Lan horrek Blas de Otero-Bilboko Hiribildua Saria irabazi zuen 2010ean.

Halaber, aurreko edizioetan bezala, BilbaoPoesiak leku berezia gordeko du umeentzat, Poesia Lehiaketaren bederatzigarren edizioarekin. Lehiaketaren sariak urriaren 23an banatuko dira, eta saritutako poemak irakurriko dira. Hortzmuga antzerki taldea poeta gazteekin batera egongo da haien 'debutean'. Joan den urteko edizioan lehiaketak 455 poema jaso zituen.

Azkenik, Agurtzane Sololuze artista eibartarraren pintura erakusketa izango da Bidebarrieta liburutegian urriaren 13tik 23ra. Oraingoan, artistak, Txinatik etorritako zetari buruz egindako lana, egitasmoan parte hartu duten zenbait egile euskaldunek eskuz idatzitako poemekin lotzen duen egitasmoa erakusten digu. Idazle horiek Harkaitz Cano, Luigi Anselmi, Miren Agur Meabe, Iñaki Irazu, Arantxa Urretabizkaia, Kirmen Uribe, Tere Irastortza eta Bernardo Atxaga dira.